

JUAN IGN. URANGA

IRU BAKARIZKETA



ATV

32458



H. 70327
E. 74284

XV
31418

NESKA JAKINZALEAI

IRU BAKARIZKETA

MORDOSKA BATEAN

Juan Ignazio Uranga-k

IZKIRIBATUA



DONOSTIAN

JOAQUÍN MUÑOZ-BAROJA MOLDIZTEGIAN

1930^{an}



¡AU MUNDUA!

Iruditegiak aurkestatzen du, gela ariote, apaiñ izandutako baten antzarekin jarkai bi, eta beste zerbai, char ichureko tresnakin.

(Negarrez) ¿Noratu dira nere gurasuak? ¡Au eziñ biziya sortu da neregan! ¡O ama.... nere ama... (Gustiya kalkatuaz ama laztana!

(Eseritzen da eziñ egonik) ¡Arrimo gabe gelditu naiz, zer egin ez dakitala! ¿Noratu niteke oraiñ, erliak umiak azten dituzten gisan, ezti gozotan aizya banaiz? Zortzi egunen barrunbian nigandu diran ez bearrak, aundiyak izan dira. ¡Negazgarrizko egunak, irichi dira nereizat! ¡Au zoramena!

(Aieha) ¡Gurasuak ill ziran, eta Jaungoikuak beregan eraman zituen, umezurtz au, negarrezko ibar ontan bakartasun osuan, malko jariyo guztiz, nork chukaturik gabe utzirik. Aberats gisa bizi izandu naiz guraso maite ayeen arrimuan. ¿Eta oraiñ?... Arlotietan, arlotienaren mallara osoro eroriya.

Amasei urte osatuak dauzkat, eta ez naiz ezeri eltzeko gauza. ¿Zer, zer egiñ bear det oraiñ, estuasun abetatik ateratzeko? Aita bizi zala zituen ekintzetatik echeratzen zitu irabaziyakin, chit ondo, eta lasai bizitzen giñan, bañan bera illik, ama alargun gelditu zaretik, orain dala illabete inguru arte, mando eibar baten gisan, urgunka, eta erorka izan da gure biziera Nai gabe, abek guztiyak aski ez dira-

larik, Otsailla-ren bostean gabeko amarretan.... (Negarrez) nere ama ere ill zan.

(Negarrez ichedon) Ordutik oraindaño, gelditu ziran echeko tresna, eta gauza guztiyak utzkeri batean saldurik, jelate gogor batek belar sorua ustean duben bezela soilldurik, utzi naute guraso maite ayen, bi eriyotzak, osoro ondaturik.

(Negarrez jarraitzendu) ¿Non dira lengo egun zoro ayek? ¿Non, nere albotik ni zaitzen, ikastol edo eskolara neri lagunduaz joan oi zan mirabe otsegingarri ura? ¿Non dira nere chapel, lore, luma ta choriz apainkiro antolatutako ayek? (Ichedon) ¡A Jauna! Garaitz oroitzen ez darari gertatu oi zaizka, neri orain gertatzen zaizkidan ez bear mingarri abek.

¿Gurasuak bizi ziran bitartean, zerbait lanetan sayatu izan banitzan, gertatuko al zitzaizkidan, oraingo bakartasunezko gauzak erabaki eziñ abek? Ez, ez: ez nitzan egongo orain naguen bezela zer egiñ ez dakidala.

¡Gurasuak: gurasuak!.... ¿Zer gatik ez ninduten bear gayer, neskacharen aldamenean jaitzen, zerbait lanetan ikasteko? Bada, chikitandik ikasi izan banuben mantal urratuak arabatzen, edo beste echerako bear diran gauz asko egiten, gaur beste gisatan arkituko nitzan.

Sasoi batean iruditzen zitzaidan almen aundiyeen jabea nitzala, eta iñor etzala nere mallara iriñten, ainbesteraño goiztiriztua neguen. Neskamea ere nere mendean idukitzen nuben, eta agintzen niyon zer nai gauza zakarkeri aundiz, guztiya irudimenez, eta aizez betia neukalako burua. ¿Eta oraiñ?... Nori agindu, eta nork agindurik gabe bakar bakarrik, zerbait arrimoren zalantzan.

¡Guztiya alferrik!.... Arrimo gurtiyak urrutiratu dira ni gandik, aiziak orbel igarra udazkenean bere suaitz muturretatik osoro etenik, urrutiratzen duben bezela. Nere gurasuak bizi zirala, ayen adiñkide batzuek laztanka ibilli o ziran nerekiñ, beti zerbait erregali emanaz. Guztiyak maite ninduten ichurak agertzen zizkidaten, bañan oraiñ.... iñork

ez naz ezagutzen. ¡Au mundua! Ezeren premirik ez neuke nian, eta goitsu samarreko ichuran bizi giñanean, nerekiñ zer egiñ etzekitela ibiltzen ziran adiškide guztiyak, bañan onla, guztik errukarri ikusirik, ez da iñor kupitzen nitzaz, baizikan, begi zearka begiratzen dirate, iñoiz edo beñ ikusten nautenian; iñolaz ere, zerbait eskatuko diyotean bildurraz.

¿Ez ote litzake ohea izango, beartsu arki naizen bezela arkiturik, zerbaiten laguntza erakustia neri? Berriz, ta berriz ere esango det: ¡Au mundua!

¿Zer egiten dute oraiñ, nere osaba eta izeba, len asko maite ninduten ichurak agertzen zizkidaten ayek? ¿Noratu dira ayen ezkeintza aunditasunez muga, eta neurri gabe-koak?

(Ichedon) Nere ongi izate guztiya, gurasuak menderatu zio tuben eriyotz beltzak eraman zuben, chitua atzaparretan arranuak eramaten duben bezela. Orain, orain da garaya, ni bide zuzenian jarririk, nondik ongiyena ibilli erakustek-¿Bañan, nork elduko diyo lantegi oni? Egintza aundi eta ederra izango litzake bañan, ikusten danez, iñorkez.

Norbaitzuei agertzen badiyet nere naiera, beso buru biyak beren mugatik eragiñaz mugiturik, egaztiyak eguak astindurik somorruak botatzen dituzten bezela, biraltzen naute beren ingurutik.

¡O, Aingeru zaitzallca! ¡Arren da arren eskatzen dizut nere biyotzaren aginpidez, zaitu ditzazula nere ibillera guztiyak, bide okerrez loitaratu ez nadiñ. Eta...

Oraiñ neskame nua

aldetan lekura,

urrutiratu gabe

albadet gertura

zaitu nazala otoitz

egiñaz Zerura.

OSTATUAN

Iruditegiak aurkestatzen du ostatu bateko bazkagelo. Agertzen da Luisscho mai eztalkiya tolestuaz.

¡Zer, zorioneko arkiera izan zan neretzat andre Iñaši-rekin baserri gogoangarri artan! ¿Nola aztu nere egun ayetako ibillera negargarri, eta andre Iñaši-ren mesede berdiñ gabekoa? Beti gogoan idukiko ditut bakartasun arrimo gabeko, izaera mingarrizko egun nekoso ayek. (Mayaren erdian tolesturik usten du mai eztalkiya). ¡Zer gaizki arkitu nitzan inoren laguntza gabe! Bañan, nere otoitz aingeru zaitzalleari biyotzaren aginpidez egintako ark, ordain aundiya izandu du zerutik.

Andre Iñaši-k ekarri ninduen eche on maitagarri ontara, zeñatan bizi naizen geroztik, chit ederki eta opakirozko biyotz on artean, non, iruditzen zaidan guraso neriak balira bezela, maite eta zaitzen nautela.

Echekoandre eta nagusiyak, ez dute inorekin agintze zorrotzik, baizikan, agindu bear duten guztiya agintzen dute, mesede aundiz eskatuaz, eta mintzaera guztiz samurkirotsuan.

Umezurtz gelditu nitzanian inoren arrimo gabe, lore ši-murra usairik gabe bezela, gelditu zitzaidan biyotza amoriyorako zapuzturik. ¿Noratu zitekien bada, barrungo erapeko eder au, bakartasunez negargaiturik arkitu zan garayan? ¿Zer egiñ bear zuben moteltasun neurri gabeko arekiñ? ¿Gaišua, zeguen bill bill egiña, loriz gabaz egoten dan bezela, bañan bere amoriyorako gaišotasunakin biraltzen zitu, gaišotasunezk ooñazearen ageritzat begiyetara, malko

garratz ugariyak, begi biyen ertzetatik aurpegiraturik, bere aultasuna azaleratzeko.

¡Zer egun gogoangarriyak diran neretzat, gurasuen eriyotz ondorengo negargarri ayek!

¿Bañan zer? guztiyak era bat aztutzat usteko, biyotzak egin du amoriyo berrira bere astiñ aldi ederra, lurrak intzaz, eta eguzkiyan berotzez egiten duben bezela.

Pizkor aldi aundiyaren jabe da, bere maitasunarekin ordaingai edo katibagaitzat, biyotz amoriyo ugarizko eder egiyazko bat pištu danian garai onez beraganuntza.

¡Zer ongi aditu ziran aingeru zaitzalliak, nik egun batian egiñ niyon otoitz biyotzetikako ura!

Nik igaro nituben goze, eta ez bear naigabeko ayek, pake, eta izaera onezkuakin ordainduak izan dira, aingeru zaitzallearen bitartez, zerutik.

Nagusi eta echekoandriak, beren alaba banitzake bezela maite naute, nik ere, zer esanik ez dago, bada gelditurik ni gelditu nitzan gisan, amoriyo edo maitasunari irteera eziñ emanik, eta arkitu detanian noratua, biyotzaren mugidaz, berielaz azaleratu ditut bere aginde gustiyak.

Jakiña dan bezela, Jaungoikuaren legeko agintzetan ere amoriyua da ispillu edertzat erakusten zaigun lenengo agindea, eta beragatik, amoriyo gabeko biziera litzake, izaera moteleko legor, eta inozotsua.

Nagusi, eta echekoandriak maitatzeko maite nauten diña, nere langilletasun, eta on izatiaz gaiñ, dago bika-teko aunditzat, gure izaeraren neurgai zuzen, berdin gabeko amoriyua.

¿Amoriyo gabeko bat izan banitzan, eta asko diran bezela ontaz chiniñmen gabia, irichiko al zitzaidan biyotza irichi dan maitasun mallara?

Ez deritzot: ¿eta otoitz eder ura, aingeru zaitzallia bitarteko jarririk zeruratuko al nuben? Orra bada, nola dan bearteko gauza eta almen aundikua, Jaungoikuaren legeko

lenengo agintzan arkitzen degun agindea. ¡Amoriyua:
Amoriyua!

Onen indarrez sortzen zaizkigu
buruko chorabiyuak,
zortze lekutik uste gabian,
manchokirotsu iyuak,
malko garratz, ta pozdunen jabe
beti dan amoriyuak.

¿Nola ez naute bada ni maiteko nagusi eta echekoan-
driak, gerora aita eta ama deitu bear badiyotet? Bitarteko
aundi orren bidez, beren seme bakar Dionisiok ezkeniya
dauka bere biyotza neriaren trabeskaitzat.

Nik nai detan bezela Jaungoikuak nai badu, egun gnchi
barru izango gera elkarren, eta ala bear bada, eman dezai-
gula luzaroko osasuna, pake eder naikidatsuan gurasuen
aldamenean bizitzeko, maitasun aundiya arkitu detan.....
Ostatuan.

MAITASUNA

Iruditegiak aurkestatzen du, oslatuko bazkagela guztiz apaifikiro antolatua.
Luisahe agertuko da, soñeko goitik berañoko edo bata deritzonakin
jantziya.

(Guztiz alai) Amoriyua... Amoriyua. Au da gure bizitzaren
arri ondekitiya; au gabe ez dago gugan mugidarik, zerga-
tik dan gure izaeraren nagusi goimentsua, eta onek buru-
ratzen ditu biyotzaren erakintza guztiyak.

Amoriyuak dauzka kuchapetuak biyotzaren zakonenian,
gure egintza on eta charrak, zeñagatik askotan gerta oi

diran biurkeri aundiyak, batez ere, berotasun geyegiz bere mugatik gaištokerirako irtetzen danian.

Badira asko esango dutenak, gizon ero batek ez dubela amoriyorik; bada nik, nere iritzi urriyaren bidez diyot, abek ere gauz aundi onen jabe dirala beste edozein bezela' bañan biyotzaren erakintzak buru bidez utsegiñik, barrutzen utzi gabe, bear dan lasaitasunarekin.

¡O, amoriyua, amoriyua!....

Zure mende gauzkatsu

non nai, gau ta egun,

askotan ez dakigu

zer egiten degun.

¡Esna, edo lotan!....

denak lotuak gaude

zure lore šortan.

Bai, bai; amoriyua da gure zuzendari pizkor, eta almentua; biyotzian dauka bere ezkutakucha, eta biraltzen ditu burura erakintza on gozakitsuak.

Au bitartekotzat arturik, noratu ez nekiyela bakartasunean gelditu nitzanian, zuzenkidatu nuben aingeru zaitzalligana otoitz eder, biyotzetikako ura; eta aiñ ondo irten zait guztiya, non nere amoriyua sartu dan galai baten begiyetik, erapeko maitetzat bere biyotzian, eta anchen dago umutzen epeltasun aundiyan, beria neria bezela. ¿Au guztiya zergatik? Biyotzareu erakintza, edo amoriyuagatik. ¡O, amoriyua!

Aiñ zera, aundi eder-

nola zerañfiña,

gure gayak ez dira

zuretzako diña.

¡Eta zer pizkorra!....

gizon bat illagatik

zera illezkorra.

Onen bitartez irichi det biziera on lasai eta paketsua; umezurz arlote beartsua nitzan garayan, ez nuben uste bizi malla eder goitsu oraingora irichiko nitzanik; bañan aingerua, aiñ da zaitzalle kontuzkua, non, nere ibillera guztiyai zintzo jarraitu diyen, otoitz egiñ niyonetik oraindaño.

¿Bada, amoriyuak nigan indarrrik izan ez bazuben, oroituko alzi tzaidan, eta egingo alnuben otoitz ura? Ez zergatik biyotza egongo zan mugida gabe, eta au orla egotia da, presako ura geldirik egotia bezela, errotarriya mugitzeko, bada, batentzat nola biyotza dan erabilkai kementsua, bestiantzat da, ur mugitziyaren indarra.

¿Nork esan bear ziran neri, ibillera nekoso ayetan nebillenian, malla ontara irichiko nitzanik?

Nere gurasuak ill ziranian, biyotza gelditu zitzaidan guztiz negarti, amoriyua azaleratu eziñ zutelako; bañan nork biziratua arkitu dubenian, choriya udaberriyan kabiraturik, arrautza gañian arkitzen dan beziñ alaitasun, eta amoriyoz osatua arki da.

¿Nola esan gentzake ero batek ez dubela amoriyorik baldiñ zintzuak daukan toki berean badauka biotza?

Bada, eruari zortzen zayon gaitza da, amoriyuaren agintzak jaso, eta azaleratzeko, kemen gabeko auldadez, buru naspiltza; bañan ez gentzake esan, gauz naikidatsu aundi eder ori gabia dala, zergatik biotza berekin daukan beste edozeñek bezela.

Onez gañera gertatzen zayona da; ursubulkai bati pertza utza, su askorekin daguela gerta oi zayon gauza bera (da esatia), oni burua lertzen zayon bezela, kemen gabe arki dalako suaren berotasuna artzeko, ari naspillatu egiten diyo amoriyuaren su indarrrik jaso eziñ dubelako.

Orregatik deritzot illezkorra dala, eta chiniñspe ontan egongo naiz, baldiñ uste gabeko buru naspiltza gogorrik sortzen ez bazait, biziyak irauten diran artean.

(Iehedon) Bizotzaren agintza on, amoriyua bitarteko dala. egiñ naiz senar maitagarri ederraren jabe; eta bereb orondatia beargaiturik, neregana echeratu det, mesede aundiyak zor niyozkan andre Iñaşi, alargun bakartasunean negarti gelditu dan gaişua.

¡O, Jesus amoriyotsua!

(Kantari)

Amoriyoz nausi zeean
nere Jesus maitia,
okerrikan egin badet
nitzaz kupi zaitia;
baldiñ ontzat badaukazu
nere borondatia,
zure biyotzeko suan
erre bedi neria.





